

# Lan munduan ere euskararen normalizazioarako bidean

Azken hamarkadetan euskara irakaskuntzan bultzatzeko aha-  
legin handiak egin direla nabaria da. Gure hizkuntzaren pre-  
sentiak gora egin du ikastetxeetan, baina, sarritan, eskolan  
lortutako trebakuntza galdu egiten da lantokietan, bertan gaz-  
telania besterik erabiltzen ez delako. Lan munduan euskararen  
normalizazioa lortzeko hizkuntza planak abian jarri dituzte  
EAEko enpresa askotan. Ikaslan osatzen duten zenbait ikaste-  
txetan ere ekimen aintzindariak garatzen ari dira lana eta eus-  
kara uztartzeko.



## Emun lana euskalduntzeko kooperatiba

Arrasaten (Gipuzkoa) dagoen Emun Elkarte Kooperatiboa 1997an  
sortu zen Eskoriatzako Iraskaste Eskolaren eskutik-egungo  
Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien  
Fakultatea- euskararen normalizazio prozesuan espazio berria ira-  
bartzeko asmoarekin. "Aurretik irakaskuntza, hedabideak edota  
gizarte mugimenduak landuta zeuden edo lantzen ari ziren, baina  
enpresetan ez zen horrelakorik gertatzen ari. Emun lan mundua  
euskalduntzeko sortu zen", adierazi digu Ainhoa Elices Emuneko  
Komertzial eta Marketin kudeatzaileak.

Lantokietan euskararen normalizazioa lortzeko, enpresa eta era-  
kunderi nahiz herri eta eskualdeei zuzendutako euskara plan inte-  
gralak diseinatu eta martxan jartzen ditu Emunek. Urte hauetan  
egindako lanaren emaitzaz 140 enpresa baino gehiago dira euska-  
ra planetan murgilduta daudenak Fagor, Danobat, Niessen, Lagun-  
Aro edota Mondragon Unibertsitatea, besteak beste.

Emunek bestelako zerbitzuak ere eskaintzen ditu: lan munduan  
euskara sustatzeko komunikazio lanak zein bestelako aholkularitza,  
hizkuntza normalizatorako aholkularitza berezia, euskara forma-  
zioa -ikastaro bereziak lanpostu eta behar konkretuetako hizkintza  
eskaerei erantzuteko- eta itzulpen nahiz zuzenketa lanak.  
Azpimarratzekoa da, hala ere, kooperatibaren fakturazioaren %90  
euskara planetatik datorrela. "Hauek euskara planei laguntzeko  
zerbitzu osagarriak dira. Ez dugu aparteko saiakerarik egin hauek  
bultzatzeko", dio Elicesek.

Eskarmentu handiko talde aitzindariak osatzen du Emun. "Lan  
talde dinamikoa eta gaztea da gurea. Kooperatiba sortu zenean 3  
kooperatibakide ziren, egun 75 pertsona aritzen gara lanean.  
Hauetatik 62 hizkuntza teknikariak dira, batez besteko adina 35  
urtekoa da eta %60 emakumeak gara", adierazi du Ainhoa Elicesek.

**Egun EAEn 140  
enpresa baino  
gehiago dira  
euskara  
planetan  
murgilduta  
daudenak**

**Hoy en día son  
más de 140  
empresas las  
que se  
encuentran  
sumergidas en  
planes de  
euskera en la  
CAV.**

# Hacia la normalización del euskera también en el ámbito laboral

Es evidente que durante estas últimas décadas se ha  
hecho un gran esfuerzo para incentivar el uso del eus-  
kera en la enseñanza. Ha aumentado la presencia de  
nuestra lengua en los centros educativos, pero, a me-  
nudo, la habilidad adquirida en la escuela se pierde en  
el centro de trabajo, donde sólo se usa el castellano.  
Muchas empresas de la CAV han puesto en marcha pla-  
nes lingüísticos para lograr la normalización del euske-  
ra en el ámbito laboral. Varios de los centros que for-  
man Ikaslan están desarrollando también iniciativas  
pioneras para unir el trabajo y el euskera.

## Emun cooperativa para euskaldunizar el trabajo

La Sociedad Cooperativa Emun, situada en Mondragón (Gipuzkoa), fue  
creada en 1997 por la Escuela Universitaria de Formación del  
Profesorado de Eskoriatza -hoy en día, Facultad de Humanidades y  
Ciencias de la Educación de la Universidad de Mondragón- con la inten-  
ción dar un paso adelante en el proceso de normalización del euskera.  
"Antes, se trabajaba sobre la enseñanza, los medios de comunicación  
o los movimientos sociales, pero no ocurría lo mismo en las empresas.  
Emun fue creada para euskaldunizar el mundo laboral", comenta  
Ainhoa Elices, Gerente Comercial y de Marketing de Emun.

Para lograr la normalización del euskera en los lugares de trabajo,  
Emun ha diseñado y puesto en marcha planes integrales de euskera,  
dirigidos tanto a empresas y entidades, como a pueblos y regiones.  
Como resultado del trabajo llevado a cabo durante estos años, más de  
140 empresas se encuentran sumergidas en planes de euskera, entre  
ellas, Fagor, Danobat, Niessen, Lagun-Aro o la Universidad de  
Mondragón.

Emun también ofrece otros servicios: labores de comunicación u otro  
tipo de asesoramiento para incrementar el uso del euskera en el ámbi-  
to laboral, asesoramiento especial para la normalización lingüística,  
formación de euskera -cursos especiales para responder al perfil lin-  
güístico de los puestos de trabajo y de las necesidades concretas- y tra-  
bajos de traducción o corrección. Cabe destacar, sin embargo, que el  
90% de la facturación de la cooperativa proviene de los planes de eus-  
kera. "Se trata de servicios suplementarios para ayudar a los planes de  
euskera. No hemos llevado a cabo ningún tentativa extraordinaria para  
fomentarlos", dice Elices.

Emun está formada por un grupo precursor con gran experiencia. "El  
nuestro es un grupo de trabajo dinámico y joven. Cuando se creó la coo-  
perativa, eran tres cooperativistas y, en la actualidad trabajamos 75  
personas. De éstas, 62 son técnicos lingüísticos, cuya edad media es de

Eguneroko lana erakunde ezberdinetara egokitzeko helburuz, etengabeko hobe-kuntzan oinarritzen du bere jarduna Emunek, hau baita, bere ustez, zerbitzu onena eskaintzeko bidea.

"Gure bezeroengatik gertu egotea posible egingo duen epealdi bati aurre egiteko bidean murgildu gara. Orain arte indar handia egin dugu neurketa tresnak sortzen. Orain aldez, gure metodo eta materialen estandarizazio eta hobekuntza ardatz izanik, erabileran eta motibazioan eragiteko sistemak sustraitzen ari gara. Informazio eta komunikazio teknologien erabilera eraginkorragoak bidea zabal-digu", gaineratu du Komertzial eta Marketin kudeatzaile donostiarrak.

**Euskara planak abian jartzeko ez da ezinbestekoa langile guztiak euskaldunak izatea.**

**Euskara planak aurrera egiten dezan ekimen eraginkorrak eta errealak izan behar dute.**

**No es necesario que todos los trabajadores hablen euskera para poner en marcha planes de euskera.**

**Para que el plan de euskera avance, necesita iniciativas eficaces y reales.**

35 años y el 60% somos mujeres", comenta Ainhoa Elices.

Con el objetivo de adecuar el trabajo diario a las diferentes entidades, Emun basa su trabajo en la mejora constante, ya que es ésta, en su opinión, la manera de ofrecer el mejor servicio.

"Estamos inmersos en un nuevo proceso que nos permitirá estar cerca de nuestros clientes. Hasta ahora hemos realizado un gran esfuerzo por crear instrumentos de medida. Ahora en cambio, teniendo como eje la estandarización y el perfeccionamiento de nuestros métodos y materiales, estamos trabajando para que los sistemas que influyen en el uso y la motivación se vayan arraigando. El uso más eficaz de las tecnologías de la información y la comunicación nos ha abierto el camino", añade la Gestora Comercial y de Marketing donostiarrá.



### Helburu lorgarriak

Euskara planen bidez, esan bezala, lan munduan euskararen erabilera handitzea da helburua. Euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izateko pausoak ematen laguntzen du Emunek "idatziz eta ahoz, barneko nahiz kanpoko harremanetan, maila informalean zein formalean euskarak duen presentzia handitzeko urratsak ematen ditugu".

Euskara planak abian jartzeko ez da ezinbestekoa langile guztiak euskaldunak izatea, ez eta langile erdaldunak euskara ikastera bidaltzea ere. Ezinbestekoa dena euskal hiztunak eguneroko zereginetan euskara erabiltzen hastea da diseinatutako planaren ardatzetan finkatu diren lan eginkizun errazenetatik hasita eta enpresetako organo eta langileen adostasunarekin.

Ainhoa Elicesek adierazitzekoaren arabera, Emunek jarraitzen duen metodologia estandarra da, baina plana egoera eta nahietara egokitzen dute. "Metodologia enpresa horren errealitateara egokitu behar da eta finkatu behar ditugun helburuak lorgarriak behar dute izan. Bestela kontrakoa eragin dezakete. Gune erre-zenetatik hasi behar dugu lankideak motibatuta egon daitezen", dioSKU.

Emunek landutako planek lau pausuak dituzte. Lehenengoan, diseinu fasean, enpresaren diagnostiko kuantitatibo eta kualitatibo egiten da, hau da, "nolabait esateko, lantokiaren 'argazki bat' egiten da. Euskararen erabilera, ezagutza maila eta motibazioa neurtzen dira", azaldu du Ainhoak.

Euskararen berreskurapenean eta normalizazioan Emunen metodologia teknikoa José María Sánchez Carrión Txepetxek definitutako hiru ardatzetan oinarritzen da: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Hiruretan nahikotasun maila lortu ezik, ez da euskararen normalizaziorik lortuko.

Bigarren fasean, hiru urterako helburu estrategikoak, lehen urterako gestio plana eta egituraren sorrera finkatzen dira. Inplementazioa fasean, partehartzean oinarrituz, motibazioan, ezagutzan, erabileran eta erakundetzean eragiten dute.

Euskara planak aurrera egin dezan, ekimen eraginkorrak, errealak eta neurgarriak izateaz gain ezinbestekoa da partaide guztien adostasuna bilatzea. "Kontuan hartu behar da enpresak zertarako nahi duen planak. Txinan dituzten bezeroekin hitz egiteko, adibidez, ez dute behar, baina zerbitzu edo lan tresna bezala akaso bai", gaineratu du Ainhoa Elicesek.

Hirugarren fasean helburuen betetze maila ebaluatu egiten dira Euskara Batzordean eta goragoko mailetan. Honen ondoren, Euskara Batzordea eta aholkularien artean finkatutako ekintza zuzentzaileak burutzen dira.

"Galdera da: noiz bukatzen da euskara plan bat? Planteamendua ez da argazki bat ateratzea, kartelak euskaratu eta urtean behin mezu pare bat euskaraz bidaltzea. Hau ez da maratoni bat, karrera luzea bai, ordea", adierazi du Elicesek.

Planaren eragile nagusiak koordinatzailea, Euskara Batzordea eta teknikaria dira. Euskara Batzordea planaren jarraipenaz eta koordinazioaz arduratzen da eta koordinatzailea planaren jarraipenerako izendatutako pertsona da. Teknikari lanak anitzak dira: aurreazterketa eta diseinua, Euskara Batzordea aholkatu, urteroko gestio plana definitu, lanpostuko laguntzak, ekimenak dinamizatu eta koordinazio lanak eta itzulpenak.

Euskararen berreskurapenean eta normalizazioan Emunen metodologia teknikoa José María Sánchez Carrión Txepetxek definitutako hiru ardatzetan oinarritzen da: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Hiruretan nahikotasun maila lortu ezik, ez da euskararen normalizaziorik lortuko.

Bestalde, euskara planak modu arrakastatsuan aurrera egin dezan oso garrantzitsua da lankideen, enpresaren nahiz Emunen konpromisoa. "Zuzendaritzaren inplikazioa oso garrantzitsua da. Hasieratik parte hartzea eta kontziente izatea. Eta langileena, noski. Jendea batu egin behar da", gaineratu du komertzial eta marketin kudeatzaileak.

### Objetivos alcanzables

Como ya hemos mencionado, el objetivo es incrementar el uso del euskera en el mundo laboral mediante los planes de euskera. Emun contribuye a dar los pasos necesarios para que el euskera sea una lengua de trabajo y de servicio, "damos los pasos necesarios para aumentar la presencia del euskera, de forma oral u escrita, en las relaciones internas o externas, a nivel formal o informal.

No es necesario que, para poner en marcha planes de euskera, todos los trabajadores sepan euskera, ni que los trabajadores que no lo hablen lo aprendan. Lo que sí es indispensable es que los hablantes de euskera comiencen a utilizarlo en los quehaceres cotidianos, comenzando por las tareas más sencillas que se hayan fijado en el plan diseñado, y contando con la unanimidad de los órganos y los trabajadores de la empresa.

Según Ainhoa Elices, la metodología que sigue Emun es estándar, pero el plan se adecúa a cada situación y necesidad. "Hay que adecuar la metodología a la realidad de la empresa y, los objetivos fijados deben ser alcanzables. Si no, el resultado obtenido podría ser todo lo contrario del deseado. Se debe comenzar desde lo más sencillo para que los trabajadores estén motivados", nos aclara.

Los planes que elabora Emun constan de cuatro partes. En la primera, la fase de diseño, se lleva a cabo un diagnóstico cuantitativo y cualitativo de la empresa, es decir, "por decirlo de alguna manera, se hace una "foto" del lugar de trabajo. Se mide el uso del euskera, el nivel de conocimiento y la motivación", explica Ainhoa.

En lo que a la recuperación y normalización del euskera se refiere, la metodología técnica de Emun se basa en los tres ejes definidos por José María Sánchez Carrión Txepetx: motivación, conocimiento y uso. A no ser que se logre un nivel suficiente en los tres, no podrá conseguirse la normalización del euskera.

En la segunda fase, se fijan los objetivos para tres años, el plan de gestión del primer año y el inicio de la estructuración. Todo ello tiene repercusión en la fase de implementación, basándose en la participación, en la motivación, el conocimiento, uso e institucionalización.

Para que el plan de euskera avance, es necesario, además de iniciativas eficaces, reales y mensurables, el consenso de todos los participantes. "Hay que tener en cuenta para qué quiere la empresa el plan. No lo necesitará, por ejemplo, para poder hablar con los clientes que tiene en China, pero puede que como herramienta de servicio o de trabajo sí", añade Ainhoa Elices.

En la tercera fase se evalúa hasta qué punto se han cumplido los objetivos en la Comisión de Euskera y en niveles superiores. Después, se llevan a cabo las correcciones, que se establecen entre la Comisión de Euskera y los asesores.

"La pregunta es: ¿cuándo termina un plan de euskera? El planteamiento no es sacar una foto, traducir carteles al euskera y transmitir un par de mensajes en euskera una vez al año. No es un maratón, pero sí una larga carrera", aclara Elices.

Los principales impulsores del plan son el coordinador, la Comisión de Euskera y el técnico. La Comisión de Euskera se encarga del seguimiento y la coordinación del plan, y el coordinador es la persona nombrada para llevar el seguimiento del plan. El técnico tiene una larga lista de tareas: estudio previo y diseño, asesoramiento de la Comisión de Euskera, definición del plan de gestión anual, ayudas de los puestos de trabajo, dinamización de iniciativas y labores de coordinación y traducción.

En lo que a la recuperación y normalización del euskera se refiere, la metodología técnica de Emun se basa en los tres ejes definidos por José María Sánchez Carrión Txepetx: motivación, conocimiento y uso. A no ser que se logre un nivel suficiente en los tres, no podrá conseguirse la normalización del euskera.

Por otro lado, para que el plan de euskera avance con éxito, es muy importante el compromiso de los trabajadores, de la empresa y de Emun. "Es muy importante la implicación de la Dirección. Que tome parte y sea consciente desde el principio. Y la de los trabajadores, claro. Hay que unir a la gente", añade la Gerente Comercial y de marketing.